

EINSTEINTXO

Orain dela hemezortzi urte ume bat jaio zen, Martin, Estatu Batuetan jaio zen ama hangoa baitzen, aita berriz Euskal Herrian jaio zen eta Euskal Herriko pertsona argi bat zen, Martin ere oso argia jaio zen.

Martini, seigarren mailan zegoenean hau gertatu zitzaion.

Ikastolara sartu zenean hau entzun zen:

- Einsteintxo! - Einsteintxo!.

Horrela deitzen zioten Martini argia eta lagun ona zen-eta baina kiroletan txarra. Martini deitu ziona Alex edo Shark zen oso handia eta indartsua zelako, Shark-ek esan zion itsasoko mareak (itsasgora eta itsasbehera) gaizki zihoaztela itsasgorarik eta itsasbeherarik ez zegoela.

Gau hartan Einsteintxo itsasoa ikustera joan zen eta konturatu zen ilargia orbitaz irten zelako zela ez ziola lurrari bueltak ematen eta pentsatu zuen NASA-ko base printzipalean sartzea ilargia orbitan jartzeko.

Einsteintxok dena esan zion Shark-i eta bera ere joango zela esan zion. Einsteintxok sarbidea hackeatuko zuen eta Shark sartu egingo zen. Hori zen plana eta martxan jarri zuten, esandakoa egin zuten eta Shark barruan zegoenean leku guztiak begiratzen ibili zen eta zaindari bat ikusi zuen baina joan egin zen.

Shark-ek ez zekien NASA-k espaziontziak egiten zituenik eta robotak, baina berdin zen.

Azkenean kontrol sala ikusi zuen baina harrapatu egin zuten eta NASA-ko kartzela batera eraman zuten, eta Einsteintxok sartzeko beharra izan zuen. Barruan Einsteintxo kaka praketan zuela zebilen baina aireztapen hodi batetik Shark-en kartzelara joan zen. Halako batean bera ere harrapatuta zegoela konturatu zen.

Biak etsita, alde guztietara begiratzen zuten. Einsteintxok ez zekien zer egin galduta zegoen baina bat-batean zerbait bururatu zitzaion. Oso argala zenez, bere gorputz erdia kartzelako burdineta giltza bat ikustea lortu zuen eta bakarrik hartzen saiatu zen baina ezin izan zuen. Orduan, Shark-ek hau esan zion:

- Lagundu ahal zaitut.

Einsteintxok baietz esan zion eta Shark-ek bere indarrarekin bultzatu zuen eta Einsteintxo heldu zen giltza hartzera, Shark berataz harro zegoen.

Azkenean Einsteintxok atea zabaldu zuen giltzarekin baina Shark-ek segurtasuneko zaindaria ikusi zituen eta korrika irten ziren. Halako batean Einsteintxok kontrol sala ikusi zuen, handik ilargia orbitan jarri ahal zuten baina zaindari bat ate aurrean jarri zen.

Shark-i berdin zitzaion, txoriburua zenez zaindariaren gainera bota zen eta Einsteintxo pasatu egin zen.

Kontrol sala barruan botoi asko zeuden, gorriak, berdeak, urdinak baina Einsteintxok bazekienez nola erabili, bere aitak erakutsi zion eta, ilargiruntz begira jarri zituen misilak eta hamar segundu itxaron behar zuen: bat, bi, hiru, lau... hamarera heldu zenean Shark-ek Einsteintxori hau esan zion:

- Azkar... zaindaria gainean ditut. Einsteintxok misilak bota zituen ilargira, ilargia orbitan jartzeko, eta halaxe izan zen.

Bukatzerakoan ikastolara bueltatu ziren eta Martinek hau esan zion Alexi:

- Agur Shark Euskal Herrira noa, espero laster bueltatzea.

Einsteintxo joan eta gero Shark bere etxera joan zen eta ikusi zuen NASA-ko pertsona bat bere aitarekin berbetan, eta Euskal Herrira joan ziren Einsteintxori zerbait esateko, Euskal Herrira heltzerakoan Shark galduta zebilen ez zekien halakoa zenik Euskal Herria baina Einsteintxok esan zion, (Estatu Batuetan) non bizi zen eta topatu zuten, Shark-en aitak esan zion ea nahi zuen NASA-n lan egin.

mr. savage